

COVID-19aren krisi honetan**EROSKI-K BIZKOIZTU EGIN DU HELBURU
SOZIALETAN ERABILTZEKO EROSKETA TXARTELA
ESKATZEN DIOTEN ADMINISTRAZIOEN ETA
ERAKUNDEEN KOPURUA**

- Gaur egun, 59 erakundek jo dute EROSKIren zerbitzu horretara, eta hala bermatu ahalko dute onuradunek oinarrizko elikadura eta higiene beharrak estalita dituztela
- Erosketa txartelen zenbatekoa administrazio publikoekin eta gizarte eragileekin adosten da beharrean diren herritarren eta familien premiak nolakoak diren
- Orain dela bost urte jarri zen martxan zerbitzu hori, eta EROSKI k horrelako 27.500 txartel baino gehiago aktibatu ditu; horietatik % 45 COVID-19aren krisia hasi zenetik hona

Elorrio, 2020ko maiatzaren 22a.- COVID-19ak eragin duen krisia dela eta, [EROSKI](#)k bikoiztu egin du helburu sozialetan erabiltzeko erosketa txartela eskatzen dioten administrazio publikoen eta gizarte eragileen kopurua. Entitate horiek bideratzen dituzte txartelak larrialdian diren herritarrei eta familiei laguntzeko. Dagoeneko, lurralde hauetako 59 administrazioek darabilte zerbitzua: EAE, Nafarroa, Galizia, Balearrak, Aragoi, Andaluzia eta Kantabria. 2015ean jarri zuen martxan, eta bere sare komertzial osoan eskaintzen du.

Gizarte eragileekin eta administrazio publikoekin eginiko hitzarmenen bitartez, tresna hori onuradunen eta boluntarioen eskura jartzen da, gainerako bezeroek bezala saltokian bertan erosketa puntualak edo maiztasunez egin ditzaten.

Entitateek txartela ematen diote onuradunari edo boluntarioari. Txartelak hasierako zenbateko bat du, eta, horrekin, aukera dago era automatikoan, maiztasuna pertsonalizatuta, noizean behin dirua txartelean sartzeko, erakundearen jarraibideen arabera. Txartelean dagoen saldoa kontsultatu egin daiteke dendan bertan erakutsita. Organismoek erabakitzen duten zenbateko saldoa daukan txartel batek, baita haren bitartez zein produktu eros daitezkeen ere.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Orain dela bost urte jarri zen martxan zerbitzua, eta, geroztik, EROSKI 27.500 erosketari txartel baino gehiago aktibatu ditu gizarte helburuetarako; horietatik %45 COVID-19aren krisia martxoan hasi zenetik hona. *"Gure jardura dagoen inguruarekin eta gehien behar dutenekin dugun konpromiso sozialak are eta garrantzi handiagoa hartu du alarma egoerak ekarri duen krisialdi honetan. Laguntza kanaletako batzuk behin-behinean itxi beharra egon da, eta jende batek oinarriko beharrak estaltzeko zailtasunak izan ditzake; hala, txartelaren sistemarekin, gabezia horiek betetzen lagundu nahi dugu eta tokian tokiko gizarte entitateei kolektiborik zaurgarrien alde egiten duten zereginean lagundu",* esan du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. *"Txartel hori, gainera, EROSKIren opari edo fidelizazio txartelen antzekoa da, eta zerbitzuari izaera integratzailea ematen dio ez bakarrik sorospenarena",* gaineratu du.

Elkartasuna kolektiborik ahulenekin

EROSKI beste zenbait ekimen ere jarri ditu martxan, koronabirusaren krisiak dirauen artean kolektiborik zaurgarrieneri laguntzeko. Gurutze Gorriarekin batera, elkartasun ekintza bat jarri zuen martxan estatuko lurralde osoko saltokietan, dirua biltzeko eta diru horrekin elikaduran eta higienez laguntzeko COVID-19aren krisi honetan are zaurgarriago utzi dituen kolektiboei, hau da, bazterketa arriskuan diren haurrei eta familiei. Kanpaina honen bitartez, EROSKI 120.000 euro baino gehiago biltzea lortu du. Gurutze Gorria arduratuko da, RESPONDE programaren bitartez, diru hori 25.000 familiari bideratzeaz.

Beharrean diren beste sektore batzuei laguntzeko ere, EROSKI martxan jarri zuen elkartasun kanpaina bat orain aste batzuk Elikagaien Bankuen alde. Helburua zen haien gaitasuna babestea eta indartzea datozen hiletan ere onuradunak artatzen jarrai dezaten. Gaur egun ere, bezeroek erakuts dezakete elkartasuna ordainlekuetan ekarpen bat eginda, eta ekarpen hori EROSKI emanak dituen 30 tona janariei batuko zaie.

EROSKIri buruz

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Kooperatibaren helburuetariko bat da gizartea enpresaren jarduerarekin eraldatzea. Kontsumo kooperatiba den aldetik, proiektu kolektiboa da EROSKI, kontsumitzaileari eta gizarteari emana. Horregatik, lau eremutan lantzen du bere konpromiso soziala, eta eremu horiek erakusten dute zein den haren gizarte erantzukizuna: elikadura osasungarriaren sustapena, kontsumitzailearentzako informazioa, ingurumenaren jasangarritasuna eta elkartasuna.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)